



Gogobetetasuna

1


Begiratu Emoziotegiko 86-87. orrialdeetako irudiari, eta erantzun galderei.

- Zer ari dira egiten irudiko untxitxoak?

- Zure ustez, zer harreman dago haien artean?

2

Egin eskema bat zure inguruneko pertsonarik garrantzitsuenekin.



3

Irakurri Emoziotegiko 86. orrialdean **gogobetetasunari** buruzko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra)**, dagokionaren arabera.

- Ase dugun behar batek gogobeteta uzten gaitu.
- Beharrak fisikoak baino ezin dira izan.
- Zeregin batek amaiera arrakastatsua ez badu, ezin da gogobetetasunik sentitu.
- Beharrak asetzeko gai izateak geure buruarengan konfiantza ematen digu.
- Lorpen handiek gogobeteta sentiarazten gaituzte.

● Orain, zuzendu esaldi okerrak.

4

Zer esan nahi du **asetzeak**? Idatzi definizio bat. Hitz batzuk emango dizkizugu laguntzeko.

bete

asebete

egarria

gosea

desira

beharra

5

Inguratu **asearen** sinonimoak.

nazkatua

inguratua

asebetea

betea

atseden hartua

6

Osatu esaldiak **asebete** aditza dagokion moduan erabiliz.

- Nik ogitarteko handi batekin _____ dut beti askari-orduko gosea. Zuk ba al duzu _____ beste modurik?
- Bihar, nire amak nire jakin-mina _____ du eta haurrak nola jaiotzen diren kontatuko dit.
- Duela urte asko, nire aitak Australiara bidaiatzeko zuen ametsa _____ zuen.
- Nire anai-arrebei eta niri egin zizkiguten urtebetetze-opariek _____ utzi gintuzten.

7

Irakurri eredia, eta osatu.

Betehada eragiten duen janari bat betegarria da.

- Gogoan izatea merezi duen zerbait _____ da.
- Baztertzea merezi duen zerbait _____ da.
- Maitatzea merezi duena edo bereganako maitasuna eragiten duena _____ da.
- Etsiarazten duena _____ da.
- Aspertzen duen zerbait _____ da.

- 8 Pentsa ezazu neguko egun batean txango bat egin duzula parkera. Idatzi zerrenda baten bizitzeko behar dituzun gauzak.

- Orain, pentsa ezazu txango hori udan egingo dela. Zer gauza kenduko zenituzke lehen egin duzun zerrendatik? Zein gehituko zenituzke?

- 9 Markatu beharrak direnak. Gero, inguratu behar fisikoak direnak.

- | | |
|---|---|
| <input type="checkbox"/> Egarrria ase. | <input type="checkbox"/> Hondartzara joan. |
| <input type="checkbox"/> Gosea ase. | <input type="checkbox"/> Pixa egin. |
| <input type="checkbox"/> Hotzik ez pasatu. | <input type="checkbox"/> Lagunak izan. |
| <input type="checkbox"/> Eguzkia hartu. | <input type="checkbox"/> Arropa garbia erabili. |
| <input type="checkbox"/> Taldean ondo pasatu. | <input type="checkbox"/> Lo egin. |

10 Idatzi zein diren behar fisikoak egun arrunt batean, eta adierazi nola asetzen dituzun behar horiek.

- Orain, hausnartu. Uste duzu mundu guztiak erraz ase ditzakeela behar horiek? Eman adibideak.

11 Aztertu zeure jokabidea egun batean, eta erantzun galderari.

- Zenbat denboran euts diezaiokezu komunerako gogoari? Zer gertatzen da joan ezin bazara?

- Zer gertatzen da gose handia duzunean? Zertan pentsatzen duzu?
